

EGPYTOren KONTRADIKZIOAK: ATZO ETA GAUR



Paulo Agirrebaltzategi.

Familia judu bakoitzak Bazko-jaiari Haggadah edo Pazkoko kondaira irakurriko duenean, haur guztien gogoan hauxe geldituko da: Eskalabutzako lurraldea izan genuen israeldarrok Egipto, eta bertatik libratu gintuen Jainkoak. Judu guztiak txikitatik dakarten irudia, bestealde, urtero historia berbera entzun bait dute **Bazkoko Haggadah** irakurtzean. Israeldarren Egiptoko oroimen historikoa bertako morrontzaldian eta bertatik alde egiteko epepeian itsatsia gelditu da.

Ilunpean gelditzen da, ordea, israeldarren eskalabutzako lurraldea, Jakob patriarka eta haren semeak babespean hartu zituen lurralde berbera izan zela. **Exodoko** kondairatik ezezik Bibliako historia luzetik begiratu gero, askozaz zabalagoak, konplexuagoak eta aberatsagoak agertzen zaizkigu Israel Herriaren eta Egiptoren arteko harreman historiko-biblikoak. Eskalabutzako eta tiraniako lurraldea izan zen Egipto israeldarrentzat, Abraham handiagandik hasita.

Gaurreguneko lan-emigranteen eta errefuxiatu politikoen loturak, morrontzak eta... kontradikzioak bizi behar izan zituzten hebraiarrek ere Egiptoko lurraldean. "*Gastarbeitern*" deitzen dituzte Alemanian kanpotik lan-bila hara bildutako langileak, "*ostatusko langileak*" alegia; baina denok dakigu, eta emigranteek ongien, ostatu ezik espere bihurtzen zaiela sarritan lanlekua. beraien kondizio laboral eta sozialengatik. Espetxeari ostatua esaten zaionean, edonork asmatu ohi du azpian dagoen ironia... edo zinismoa.

Negev-eko zelai zabaletan zebilen Abraham bere artaldeak eta ganaduak bazkatzen, zerutik erori ohi den euriari

esker; orduan berde eta emankor dago Negev, udaberri honetan ikusi dudan moduan. Baina batzutan urtetan ukatu ohi dio zeruak euria, basamortu gorri bihurtuz. Lehorre horietako batetik iheska aurkitu zuen Abraham-ek Egiptoko Al Fayum-eko oasian aldibaterako bizilekua beretzat eta bere ganaduentzat. Historiako lehen emigrante laborala dugu Abraham. Israel Herriaren aita. Haren bidea ikasi zuten Jakob-ek eta honen semeek ere. Izatez, Arabiako eta Si-naiko basamortuetan lehorteak eta gosete-egarriteak jotzen zituzten nomada eta beduino guztientzat ziren ametsetako babesleku Niloren ibar oparoak. Egiptok batzutan mugak itxi eta gogorrean uxatzen zituen, bestetan ateak ireki eta gogoz hartzen zituen: Unean uneko politikaren arabera. Politikaren logika kontradiktorioak!

Jeremiak ondo ikasi zuen nonbait errefuxiatu politikoen egoera arriskuetsu eta kontradiktoria; eta horien ihesleku politikoa bapatean bihurtzeko arrapalekurik errazena, pertsegizaillearen nahiz "*babeslearen*" eraso-pean. Iheslariaren bidea tranpaz beteta egon ohi da, estatuen "*logika kontradiktorioen*" eskuetan. Horrela ulertzen dira Jeremiaren dei profetiko-dramatikoak, Babiloniaren erasoaren beldurrez israeldarrek Egiptora ihes egin ez zezaten babes-bila. Babiloniako inperioren besoak luzeak bait ziren. Jeremiaren "*profeziaren*" aurka, ordea, Egiptora egin zuten ihes israeldarrek babes politikoren bila, Jeremia bera ere hara eramanez.

Guzti horretan, ordea, Egiptoren kontradikzio-logika ez da seguruenik historian zeharreko nahiz gaurko imperio eta estatuentik ezberdina. Hala ere, beste inon baino nabarmenagoak

gertatzen zaizkio Egipto bisitatzen duenari, historian zehar eta orain bertan, hango gertakari nahiz egoera elkarren kontrakoak, etengabe harriturik uzten dutenak, hain bait da handia alde batekoen eta besteakoen arteko leizea.

Basamortu amaigabeen erdian, Niloren ibar oparoa eta bizitasunez lehertu beharrean dagoena: nekazaritzako lurren halako aberastasuna, eta hor bertan bizi diren jendeen eta herrisken txirotasun mingarria; Assuan urtegiko teknologiaren emaitza erraldoia, eta aldi berean errepideen eta hirietako kale eta hauzoen itxuragabetasuna; alde bateko burokrazia —zazpi aldiz eman behar izan genuen pasaportea mugan, eta artean Kairo-n bertan berriro poliziari eskuetaratu behar izan genion—, eta bestaldeko abegi eta harre-ira ireki, xalo eta gozoa jendearen alde-rik; alde batetik, basamortuak gorde dituen harrizko piramideak, templuak eta hilobiak beren hilezkortasun maiestati-koan, eta, bestetik, Menfis, Tanis eta beste hiri historiko ospetsuen suntsi-dura, ia arrastorik utzi ez duena. Isal-ismoaren lurralde zentrala izanik— Kairo ez al da mila mezkiten hiria eta mundu islamiarraren hiriburu teologi-ko eta intelektuala?—, hala ere nazio islamiarretan kristauena Egipto da: 6 milioi kristau kpto!

Historia, lurralde eta gizarte kontradiktoria da Egipto benetan, bisitari etengabe txunditurik uzten duena: faraonikoa, batetik, eta xume baino xumeagoa, bestetik. Agian hortxe du, besteren artean, bere lilura eta erakar-mena ere.

Eta zer esan faraoien eta apaizen erlijio ofizial eta monumental erral-doiak, batetik, eta aztarnarik eta oroi-garririk gabeko erlijio herritarraz, bes-tetik? Bata bestearen ondoan eta parean bizi izan ziren. Kontradikzio bizian? Biak hil ondoren bahintzat kontrakzio handia gertatzen zaigu bien artekoa.